

Jaungoikoaren antzalda (B)

EBANJELIOA

Otoitz egiten bitartean, aurpegia eguzkia bezain distiratsu bihurtu zitzaion.

+ Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoen liburutik 17, 1-9

Egun haietan, Jesusek Pedro, Santiago eta honen anaia Joan hartu eta mendi garai batera eraman zituen aparte. Eta antzaldatu egin zen haien aurrean: aurpegia eguzkia bezain distiratsu bihurtu zitzaion eta jantziak argia bezain zuri.

Hartan, Elias eta Moises agertu zitzaizkien Jesusekin hizketan.

Pedrok esan zion Jesusi: «Jauna, zein ederki gauden hemen! Nahi baduzu, hiru etxola egingo ditut bertan: bata zuretzat, bestea Moisesentzat eta bestea Eliasantzat».

Oraindik hizketan ari zela, hodei argi batek estali zituen, eta mintzo batek hodeitik esan zuen: «Hauxe dut neure Seme maitea, hauxe dut atsegin. Entzun berari!»

Hau entzutean, ikasleak ahuspez erori ziren beldur-ikaraz. Hurbildu zitzaien Jesus, ukitu eta esan zien: «Zuti zaitezte. Ez beldurtu!»

Begiak altxaturik, Jesus bakarrik ikusi zuten, eta besterik inor ez.

Menditik beherakoan, agindu hau eman zien Jesusek: «Ez esan inori ikusi duzuen, harik eta Gizonaren Semea hildakoen artetik piztu arte».

Jaunak esana.

HOMILIA

JESUSEN BELDUR

«*Jesusen antzaldatzea*» delako pasadizoa ustekabea bukatu da. Goitiko ahots batek beldurtu egin ditu ikasleak: «*Ene Seme kuttuna da hau*», aurpegia antzaldatu du. «*Entzun honi*». Eta ez Moisesi, legegileari. Ez Eliasi, profetari, Entzun Jesusi. Honi bakarrik.

«*Hori entzutean, ikasleak ahuspez erori dira, izuturik*». Beldurra sartu die Jainkoaren misterioaren aurrez aurre gertatzeak, baina baita aurrerantzean Jesusi bakarrik entzunez bizi beharrak ere. Ez-ohikoa da pasadizoa: Jesusen ikasle maiteenak lurrian erorita, beldurrak jota, Jainkoaren ahotsaren aurrean zer erantzun jakin gabe.

Hunkigarria da Jesusen jarduera: «*Hurbildu egin zaie*» haren presentzia adiskidetsua senti dezaten. «*Ukitu egin ditu*» kemena eta konfiantza emateko. Eta hitz ahaztezin hauek

esan dizkie: «*Jaiki. Ez beldur izan*». Zutik, eta jarrai niri. Ez beldur izan niri entzunez bizitzeari.

Jada neke da ezkutatzea. Elizan beldurra dugu Jesusi entzuteko. Beldur estalia da; zurrundu egiten gaitu eta eragotzi Jesusen, gure Jaun bakar horren, urratsen ondoren bizitzea bakean, konfiantzaz eta ausardiaz.

Beldurra diegu berrikuntzaren, baina ez egungo gizon-emakumeengandik gero eta urrunago jartzen gaituen zurruntasuni.

Esan liteke, kanbio sakoneko aldi honetan egin behar dugun gauza bakarra iraganari eutsi eta hura errepikatzea dela. Zer da, ordea, beldur horren azpian? Jesusekiko leialtasuna ala beldurra Ebanjelioko «ardo berria» «zahagi berrietan» jartzeko?

Beldurra diegu ospakizun biziago eta sortzaileagoi; gaur egungo fededunen adierazle izango liratekeenei; baina gutxiago kezkatzen gara kristau on asko asperturik ikustez, zeinek ezin baitute bat egin, ez zirrararik sentitu ohiko ospakizunetan. Leialago ote gara Jesusekin, arau liturgikoetan zorrotz izanez, ala beldurra e ematen digu «haren oroitzapena» egin behar izateak geure fedea modu egiatiago eta sortzaileagoan ospatuz?

Beldurra diegu fededunen askatasunari. Kezka ematen digu Jainkoaren herriak hitza berreskuratu eta bere ametsak ozenki esan ahal izateak, edota laikoek beren erantzukizuna beren gain hartzeak kontzientziaren ahotsari jarraituz.

Batzuengan handitu egin da errezeloa erlijioso eta erlijiosei dagokiene erez, Jainkoagandik hartu duten karisma profetikoari nola leial izango bila dabiltzalako. Beldurra izan behar ote dugu Espiritua gure elizei esaten ari zaiena entzuteko?

Bere Elizan Jesusek bizirik jarraitzen du, baina haren presentzia fede handiagoaz hartu beharko genuke eta haren hitz hauek beldur gutxiagoz hartu: «*Jaiki. Ez beldur izan*».

José Antonio Pagola
Itzultzailea: Dionisio Amundarain

Blog: <https://homiliaspagola.blogspot.com/>

José Antonio Pagola Itxaldiaren Bideoak ikusteko:
<http://iglesiadesopelana3v.blogspot.com>